

## Lege zarren antzerkia

(Zeanuri'ko jaietan)

Zeanuri'n aspaldiko urte batzutan eta erriko jaiak ospatzen diranean, gazteak oso gauza egokiak gertatzen dabez erriarentzat eta erria arteko dala.

Elburua, egokia ta onuragarria, jolastuez irakastea da, jaiak egiñez erri-kontzientzia sortzea.

\* \* \*

Ori lortzeko bideak artzea ez da Zeanuri'n gaurko gauzea, antxiñatik eratzen ziran jaietan berbaldiak eta olakoak, orain urte batzuk dirala eratu zen erriari buruz «mai-biribilla» edo jentearreko alkar-izkelea.

Baiña ekintzarik gogoangarrienak oneik izan dira: XVIII gizaldiko eztegua, Erriaren lanbide zar eta barriak (Ekintza onek entzute aundia izan eban Zeanuri'tik kanpora be eta Erakusketa-tokian, «Feria de Muestras»en be antzestu eban), eta aurtan Lege zarren antzerkia.

\* \* \*

Antzerki onen gaia oso interesgarria da.

Gure kondairan lege zarrak zelan galduez joan diran aztertzen dau, Erdi-Arotik asi eta 1876'ra arte. Etorkizumari begira amaitzen da.

Euskalerrriaren eskubideak, nortasuna, izan dauan askatasun osoa agertzeko bide oso ona da ori eta orlik jokaturten dau lan onek.

\* \* \*

Antzerkiak ba dauka irudimena, batez be Erri-gogoa alegori lez agertzean, sorgiñaren berbetan Abando'ko argia ta Gernika'ko sua gogoratzean, eta antzestu ezin leikezan gauza batzuk izlaria bidez agertzean...



Antzezlarriak Zeanuri'tarrak, erri-maillako jentea dira, zar eta gazte guztiak naste, 60 antzezleri-inguru.

Baiña batzuk aitatutekotan, Emaldi'tar Frantzisko lenen. Ederto lan egiten dau eta antzerkiaren barruan daukan zeregiña ondo beteten dau. Koban bizi dan sorgiñaren lana ezin-obeto egiten dau antxiñatik olakoelan ospetsua dan Paule'k, eta Intxaurraga'tar Koldo aurkezle lez eta jauntxo lez egoki agertzen da. Azkenez, lan guztiaren barruan eta izlari ta aurkezle lez, Angoitia'tar Sebastian, geienez onek egindakoa dala uste dogu antzerkiaren idezkia.

\* \* \*

Geure ustez obetu leikezan gauza batzuk gogoratu bear doguz: Gatzaren matxinada-ondoren izan ziran ilketak berba utsez barik egitez zergaitik agertu ez? Eta bardin Bergara'ko Besarkadea, zergaitik ez agertu Espartero ta Maroto'ren arteko alkar izkelea gudarosteen laburrago egin?

Eta antzerkian ikusleak artu bear dira kontuan. Naizta ordaindu zerbait, eurentzat jarlakuak ekarri. Entzun naikoa ondo egiten zan, baiña ikusteko txarto ibilli giñan eta antzerkiak asko galtzen dau.

Benetan txalogarria eta goragarria da lan au eta, gitiñenez, euren arloan Obanos'ko Misterioa edo Eztibaliz'ko orde-emoteak dagozan maillan jarri bear da.

Beste erri batzutara be, deitzen dautse.

OLAZAR'TAR MARTIN



- × Zeanuri'ko gazteak, jolastuez batera, erriari irakatsi egiten dautsoe.
- × Lendik ikasitako bidea da ori: Antxiña berbaldiak egin ziran jaietan, oraintsu ba bai; gero, XVIII gizaldiko eztegua zelan egiten zan, urrenko lanbide zarrak eta barriak, eta orain Lege Zarren antzerkia.
- × Gaia: Erdi-Aroan asi eta 1876'ra arte, Euskadi'ren kondairea, lege zarren ikuspegitik.
- × Antzerki-bideak: Erri-gogoa ta sorgiña, irudimenezko norkiak eta izlaria jazo-penen azalpenak emoteko.
- × Antzezlarriak: Irurogei erriar, Emaldi'tar Frantzisko Eujenio gudari lez, Paule sorgin lez, itxaurraga tar Koldo aurkezle eta danaren azpian eta barruan Angoitia'tar Sebas idazla ta izlari.
- × Obetu bearrekoak: Gatzaren matxinaderan ondorenak (ilketak) antzestu, bardin Bergara'ko besarkadea. Ikusleak zutunik egon-bearra.
- × Erria kultura-biderra sartzeko eta kondairatik erri-zaletasuna aterateko, oso lan egokia da.